

Sasieta Mankomunitateko Batzorde Exekutiboak, 2010eko ekainaren 10ean egindako bilkuran, ondorengo AKORDIO hau hartu du:

1. Sasieta mankomunitateko **Zerbitzu Teknikoek** hiri hondakinen **gaikako bilketa egiteko beste modalitate batzuk aztertzeari** ekingo diote, gaur egun edukiontzi ezberdinak biltzen dituzten borondatezko aportazio gunetan oinarritutako sistemaz aparteko modalitateak alegia, eta bereziki **"atez ate"** bezala ezagutzen den sistema, etorkizunean Sasieta mankomunitateko eremuan ezartzeko bideragarritasuna zehaztu ahal izateko.
2. Aipatutako azterketa egungo hiri hondakinen bilketa zerbitzuko **kontzesioaren epemuga baino urte bete lehenago amaituta** egon beharko da, ondoren, mankomunitateak hala erabakiko balu, lehiaketa berriaren baldintza pleguak zehazteko oinarri bezala erabili asmoz.
3. Xede horretarako, mankomunitateko Zerbitzu Teknikoek era guztitako **datuak bilduko** dituzte, teknikoak, logistikakoak, antolakuntzakoak, ekonomikoak e.a., batik bat Sasieta mankomunitateak duen biztanle banaketa eta hiri egiturarekin ahalik eta antzik handiena duten bestelako udalerrri eta mankomunitateetan, bai Gipuzkoako lurralde historikoan bai "atez ate"ko sistema garatua dagoen beste hainbat lurraldetan ere (Catalunya, Italia e.a.).
4. Azterketa hau behar bezala gauzatzeko mankomunitateak erakundeen arteko **lankidetzaren hitzarmenak edo akordioak bultzatuko** ditu "*Associació de Municipis Catalans per a la recollida selectiva porta a porta*" bezalako elkarteekin **datuak trukatu** eta **aholkularitza tekniko**a jaso ahal izateko. Horretaz aparte, "atez ate"ko bilketa arloan ospea duten **erakunde independienteren edo adituen kanpoko asistentzia tekniko**a kontratatuko du.
5. Datuak bildu eta azterketa egin bitartean, **etxetako hondakinen zati organiko konpostagarriaren gaikako bilketa marroi koloreko edukiontzi bidez Sasieta mankomunitate osoan zabalduko da** eta era berean, **autokokonpostaia ere ahalik ete gehien zabalduko da**, Sasieta mankomunitateak 2009/12/21ean eta 2010/04/14an egindako bilkuran hartutako erabakiak betez.
6. Edukiontzi bidez egindako gaikako bilketa sistemarekin edo agian sistema honen bilakaera eta optimizazio modura txartel adimendunen teknologia erabiliz sistema "*personalizatu*"arekin lortutako emaitzak batetik, eta "atez ate"ko bilketa ezartzeko bideragarritasun tekniko eta ekonomikoaren inguruko azterketaren ondorioak bestetik, mankomunitateak **etorkizuneko bilketa zerbitzuaren baldintza pleguen zehaztapen eta edukiaren** inguruan dagokion **erabakia hartzeko** oinarri bezala erabiliko dira.
7. Mankomunitateko **Batzorde Exekutiboak**, berak erabakitzen duen maiztasunarekin aldizka bilduko da aipatutako **azterketaren garapenaren jarraipena** egiteko.
8. Akordio hau, mankomunitateko **Batzorde Errektoreari aurkeztuko zaio**, egiten duen lehen bilkuran bere onspena emateko.